BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

205

AGINDUA, 2014ko abenduaren 15ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014-2015 ikasturtean Haur Hezkuntzako 1. zikloa emateko baimena duten udal haur-eskolen zerrenda argitaratzeko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2013ko azaroaren 20ko Agindua ikusi da, zeinean argitara ematen zen 2013-2014 ikasturtean Haur Hezkuntzako 1. zikloa emateko baimena zuten udal haur-eskolen zerrenda.

Kontuan izan da Haur Hezkuntzako 1. zikloa emateko baimena duten udal haur-eskolen zerrenda alda daitekeela haur-eskola berriak zabaltzeagatik edo lehendik dauden haur-eskolak aldatu edo baja emateagatik.

Arau hauek ikusi dira: azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua (19ko EHAA), 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan); abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua (abenduaren 31ko EHAA), 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautzen dituena; otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE), haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituena; 2008ko apirilaren 10eko Agindua (maiatzaren 19ko EHAA), azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa garatzen duena, bai eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ere. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2014-2015 ikasturtetik aurrera Donostiako «Zuloaga» Udal Haur Eskolak (Gipuzkoa), 20012882 kode-zenbakidunak, baja ematen du, Haur Hezkuntzako 1. zikloa irakasteko baimena duen udal haur-eskola gisa.

2. artikulua.– Agindu honen eranskinean argitaratzen da 2014-2015 ikasturtean Haur Hezkuntzako 1. zikloa emateko baimena duten udal haur-eskolen zerrenda.

3. artikulua.– Indarreko araudiak Haur Hezkuntzako 1.zikloa emateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituen gela-kopuruaren araberakoa izango da Haur-eskola bakoitzak jardunean izan ahalko duen gehienezko unitate-kopurua. Unitate horiek zero urtetik urtebetera, urtebetetik bi urtera edo bi urtetik hiru urtera bitarteko haurrentzat izango dira, adin-tarte bakoitzarentzako ikasgelak bete behar dituen baldintza espezifikoen arabera,

4. artikulua.– Unitate bakoitzaren gehienezko edukiera abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren 4. artikuluan adin-tarteen arabera ezarritakoa da.

5. artikulua.– Haur-eskolek indarreko araudiak eskatzen dituen espazio eta instalazio guztiak izan beharko dituzte eta, gainera, Eraikuntzako Oinarrizko Arautegia bete beharko dituzte (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen

higiene, osasun, akustika, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna ikastetxearen titularrarena izango da.

6. artikulua.– Haur-eskolak beharturik daude Haur Hezkuntzako lehen zikloan hezkuntza-arreta indarreko araudiaren arabera ematera, irakasleek izan behar dituzten titulu eta hizkuntza-eskakizunei dagokienez.

7. artikulua.– Agindu honetan adierazitako daturen bat aldatu behar izanez gero, udal haur-eskolek dagokion berrikusketa eskatu beharko dute.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 15a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

Kodea: 01006162
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Tximeleta»
Titularra: Gaubeako Udala.
Helbidea: Arquitecto Jesús Guinea, 92
Udalerria: Gaubea.

Kodea: 01006332
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Haurtzaro»
Titularra: Vitoria-Gasteizko Udala
Helbidea: Cantón de Santa María, 2
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.

Kodea: 01006368
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Lourdes Lejarreta»
Titularra: Vitoria-Gasteizko Udala
Helbidea: Blas de Otero, 12
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.

Kodea: 01006277
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Sansomendi»
Titularra: Vitoria-Gasteizko Udala
Helbidea: Valentín de Foronda, 4
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.

Kodea: 01006681
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Zabalgana»
Titularra: Vitoria-Gasteizko Udala
Helbidea: Avenida de la Ilustración, 46
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.

Kodea 01006319
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Zaramaga»
Titularra: Vitoria-Gasteizko Udala
Helbidea: Reyes de Navarra, 16
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

Kodea: 48015891
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Arteagabeitia»
Titularra: Barakaldoko Udala
Helbidea: Unamuno, 6
Udalerria: Barakaldo.

Kodea: 48017897
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Llano»
Titularra: Barakaldoko Udala
Helbidea: Pío Baroja, z/g
Udalerria: Barakaldo.

Kodea: 48015955
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Txikitxu»
Titularra: Portugaleteko Udala
Helbidea: Abaro, 36
Udalerria: Portugalete.

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

Kodea: 20012833
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Galardi»
Titularra: Andoaingo Udala
Helbidea: Extremadura, 6
Udalerria: Andoain.

Kodea: 20012845
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Aretxabaleta»
Titularra: Aretxabaletako Udala
Helbidea Belorrieta, 8
Udalerria: Aretxabaleta.

Kodea: 20012857
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Arrasate/Mondragon»
Titularra: Arrasateko Udala
Helbideao: San Andres, 8
Udalerria: Arrasate.

Kodea: 20012924
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Eskoriatza»
Titularra: Eskoriatzako Udala
Helbidea: Aranburuzabala, 1
Udalerria: Eskoriatza.

Kodea: 20012948
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Irun»
Titularra: Irungo Udala
Helbidea: Uztapide Bertsolaria, 1
Udalerria: Irun.

Kodea: 20012951
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Partzuergoa»
Titularra: Oiartzungo Udala
Helbidea: Elorrondo, z/g
Udalerria: Oiartzun.

Kodea: 20012961
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Alotza»
Titularra Ordiziako Udala
Helbidea: Arana, 15
Udalerria: Ordizia.

Kodea: 20012973
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Pasaia»
Titularra: Pasaiako Udala
Helbidea: Arrandegi, 21 - Soilaruarte, 2
Udalerria: Pasaia.

Kodea: 20012997
Izen generikoa: Udal Haur Eskola
Izen espezifikoa: «Usurbil»
Titularra: Usurbilgo Udala
Helbidea: Kalezar, 15
Udalerria: Usurbil.